

olio ekartzen zituzten. Urtero 800-1.000 bale artean hiltzen zituzten, urte onetan. Baina gero baleak urritu egin ziren».


#### PAPER-SORTEN ARTEAN GALDUTA

Informazio hau guztia lortzea ez da erraza izan. Urte luzeetako lanaren emaitza da, eta oraindik paper artean jarraitzen du Azpiatzuk. «Oñatiko artxiboan dokumentu asko daude: ontziak nola egiten zituzten, barruan zer sartu behar zen, marinelen kontratuak... Tolosan ere badago informazioa, baina itsaso bazterretako ia negozio guztien agiriak Oñatin daude. 16.000 paper-sorta inguru daude, larruz josiak, eta bakoitzean 300 kontratu. Irakurtzen duzu batek astoa saldu zuela, besteak ez zuela ordaindu... Agiri batean oñatiar batek Ternuako negozioan sartuta Debako batekin egindako hitzarmena aurkitu nuen. Dokumentazio pila bat dago», dio liluraturik.

Valladolidera ere jo izan du informazio eske: «Lehen maila-

ko epaileak alkateak ziren. Bere epaiarekin ados zeudenak korrejidorearengana joaten ziren. Eta korrejidorearekin ere ados ez bazeuden, Valladolidera jo-tzen zuten. Aurreko batean dokumentazio baten bila nenbilen eta bost paper-sorta atera zizkidaten. Zer nahi duzun eskatzen diozu eta disko batean bidaltzen dizute, formatu digitalean. Duela gutxi 400 fotokopia inguru iritsi zitzaizkidan», azaldu du.

Bere pasioa ezaguna da eta, horregatik, ingurukoek ere lagundu egiten diote. Bere suhiaren aita argentinarra da eta bertatik liburu batzuk bidali zizkion Irizar almiranteari buruzkoak. «Bitxia da, 1850ean bertara joandako oñatiar baten semea itsas munduan sartu eta teniente bihurtu zen; bada, han galduta zeuden norvegiarrak erreskatatu zituen izotza hausteko itsasontzi batekin. 1903an munduko prentsak hori islatu zuen. Orain duten izotz-hauslea “Almirante Irizar” deitzen da, haren omenez», amaitu zuen.



Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

## Niraultza

### Mirari Martiarena

**E**z da behar hainbeste urte, egun haxe dago bizitzeko», dio Gosen “Eguna” kantuak. Joseba Sarriónandiak idatzitako hitzek eta Ines Osinagaren ahotsak gogorarazi didate abenduan urteak betetzen ditudala. 30 urte aurten, eta ez, ez dut zahartzen ari naitzelako inolako lotsarik edo konplexurik.

Anariren “Agur Jesusen Ama” abestia- ren bertsio instrumentala entzuteak gogorarazi dit bizirik nagoela. Elizako abesti ezaguna, azken zortzi urteetan bi aldiz entzun dut eta hirugarrenez entzuteak gogorarazi dit ze min sentitu nuen bi lehengusuen hiletetan. 30 urte egin baino lehenago hil ziren, eta, nik, eurak ez bezala, bizitzeko zortea dudala pentsatzen dut maiz. Horrelako kolpeetan ikasten

dugu egunean egunekoa bizi behar dugula, baina errutinak ahaztarazi egiten digu. Dena biharko, dena etziko eta, askotan, dena beranduegi denerako uzten dugu.

30 urte bete ditut eta oraindik jakinarazpenik jaso ez dudana arren, badakit gazte txartela kenduko didatela. Baina nigan bada haur bat, Mirari txiki handi bat, gaitxo dagoenean amaren magala eta mimoak eskatzen dituen, eta, sendatzen hasita-koan, manta lepoan lotu eta super heroiarena egiten ibili berri dena etxeko pasilloan. Inolako lotsarik sentitu gabe, zahartuz goazen heinean ahazten dugun haurrari lekua egin diot eta aske sentitu naiz. Iraultza txiki bat egin dut nire barruan: niraultza.

Oiartzungo elizako kanpaiak jotzen ikasten ari naiz (ez da txantxa). Erritmo batek “hor konpon” esaten du, eta, kanpaien bidez jotzen ikasi dudana arren, “hor konpon” hori barneratu nahian nabil. Barneratu, sentitu eta egunerokoan garrantzitsuak ez diren gauzei argi esan. Umetan egingo nukeen bezala.

“Oroitu, itzartzean eguna bakarra dela eta ez dela halakorik sekula errepikatuko” jarraitu du Gosen abestiak.

*Déjàvu*-ak izango ditugu, baina egunak errepikaezinak dira eta gure esku dago lotan dugun haurra itzartu eta niraultza txikiak egitea.

Ez al litzateke polita urtean behin beharrean, egunero bizi eta “zorionak guri” abestea? •